

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresan bezeroekiko harremanari garrantzi osoa ematen diogu, oso garrantzitsua egiten zaigulako bezeroak mantentzea eta zaintzea.

Gure enpresak bezeroekiko daukan harremana pertsonala eta aurrez aurrekoa izango da. Hau da, bezeroak erosketa egiteko unean zerbitzua saltzen duen pertsona jakin batekin egongo da, honek zerbitzua saltzeko orduan aholkuak emango dizkio.

Aldi berean arazorik egonez gero gure enpresak arazoak konpontzeko zerbitzua eskainiko luke. Hau da, arazorik izatekotan bezeroak gure enpresaren telefono zenbakia izango du eskura, 24 orduko zerbitzuarekin gure laguntza behar denean eskaintzeko nahiaz.

Halaber, zerbitzu automatizatua eskainiko diegu, beraz, gure web gunearen bitartez bezeroek gure zerbitzuen ezaugarriak ezagutu ditzakete eta honen bitartez zerbitzua eskatu edo erosi. Web honetan, aurretik egindako eremu natural batzuen argazkiak agertuko dira, gure zerbitzuari buruzko informazioa, hau da, zerekin lan egiten dugun edo zer material erabiltzen ditugun eta zerbitzu hau eskuratzea daukan garrantziari buruzko azalpen bat agertuko da. Era berean, beste sare sozialetan gure zerbitzuaren kontu bat sortuko dugu, gure zerbitzua aurkezteko, bezero gehiago lortzeko eta pentsatzen dugulako horrela errazagoa dela jendeak gu azkarrago ezagutzea. Sare sozial hauek izango ziren adibidez Instagram, Facebook edo Twitter.

Bezeroek gure negozio eremuan integratzeko gauza hauek egingo ditugu:

- Gure sare sozialetan eta web gunean berritasunei buruzko albistek zabalduko ditugu
- Beraiek gauzak aldatzeko aukerak izango dituzte
- Gure zerbitzuak eskuratzen edo berritzen dituzten bezeroek, berriztatzearen 5. aldian, 6. bat dohainik eskainiko diegu.